

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
AZTERKETA IDATZIA

A eredua

1. ABIZENA _____ 2. ABIZENA _____
IZENA _____ NORTASUN-AGIRIA _____
KATEGORIA _____
AZTERKETA-TOKIA _____ AZTERKETA-EGUNA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrian idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Nola egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dituzu ondo.

UNAI BASURKO, 159 EGUN ITSASOAN BAKARRIK

Gazte honek askoren ametsa bete du munduari bira emanez, bakardadean gainera. Unai ehun eta berrogeita hemeretzi egun egin zituen itsasoan eta, nahiz eta gogorra izan dela aitortu, berriz ere ibilbide bera egingo lukeela adierazi du.

Nondik datorkizu itsasontzietarako zaletasuna?

Nire gurasoekin hasi nintzen nabigatzen umetan, Getarian, itsasontzi txiki batean. Txalupa handitzen joan zen. Gero eta ordu eta egun gehiagotan praktikatzen nuen nabigazioa, eta hortik datorkit zaletasuna.

Itsasontzirik ba al zenuten familian?

Bai, aitak 8 metroko itsasontzia erosi zuen eta aukera genuen guztietan erabiltzen saiatzen ginen: asteburuetan, oporraldi gehienetan... Inbertsio bikaina da, probetxua ateratzen badiozu.

Zer sentitzen da bakarrik nabigatzean?

Taldean nabigatzearekin alderatuta, askoz sentipen handiagoa duzu, bai itsasontziarekin, bai itsasoarekin. Aldi berean, gogorragoa da, lan gehiago eskatzen dizu eta.

Taldean edo bakarka ibili nahiago duzu?

Nik uste dut nabigatzea atsegin dugunok modu guztiak ditugula gustuko. Izan ere, tripulazio on batekin aritzea oso dibertigarria da, baita txapelketetan parte hartzea ere, edo oporretan joatea belaontzi batean. Azken finean, aukera handia eskaintzen duen kirola da.

Baina, hainbeste egunetarako...

Bai, bakarrik hobeto; batez ere, bizikidetzarengatik. Baina, garrantzitsuena gozatzea da beti.

Ehun eta berrogeita hemeretzi egun bakarrik. Zein izan zen memento gogorrena?

Hasiera oso zaila egin zitzaidan. Denbora pila pasatu nuen dena prest edukitzeko. Txapelketa hasi eta berehala arazoak izan nituen eta abiapuntura itzuli behar izan nuen. Psikologikoki memento txarrena izan zen.

Pentsatu al zenuen inoiz txapelketa uztea?

Ez, inoiz ez zitzaidan horrelakorik burutik pasatu ere egin. Zailtasunak zailtasun, beti pentsatzen nuen itsasontziak irauten zuen bitartean nik ere iraungo nuela.

Ehun eta berrogeita hemeretzi egunean bakarrik egonda, entretenimenduren bat izango zenuen, ezta?

Egia esan ez dago denbora askorik entretenimendurako, denbora gehiena lanpetuta egoten baitzara: belei jaramon egiten, janaria prestatzen, apurtutakoak konpontzen, atsedean hartzen... Baina denbora libre pixka bat nuenean, irakurri edo abestiren bat entzuten nuen.

Zertan pentsatzen da horrenbeste denbora bakarrik igarotzean?

Kontu ugari etortzen zaizkizu burura. Meditatzeko aprobeixatu nuen, bizitzan egindakoaz, lagunez, familiaz, txapelketaz...

Eta etxera iristean zer sentitu zenuen?

Gogorra egin zitzaidan. Bi urtetan zehar aktibitate jarraitu bat izan nuen eta amaitzean gogorra egin zitzaidan gelditzea.

Zertan zabilta orain?

Noizean behin nabigatu egiten dut, baina batez ere *Velux* txapelketan bizitakoa kontatzen dihardut.

Hartuko al zenuke berriz ere parte proba horretan?

Bai, zalantzarik gabe.

Bukatzeko, zer esango zenioke bela-munduan hasi nahi duen norbaiti?

Ez pentsatzeko gazte izan behar duenik hasteko. Berdin dio adinak nola sexuak. Eta onena, probatzea dela. Lan asko eskatzen duen kirola izan arren, ematen dituen pozak ere asko dira. Gainera edozein aurrekontutara egokitze moduko txalupa bat dagoela esango nioke; eta itsaso-eskola batera joan eta probatzeko aukera dagoela.

Euskonews Gaztea, 24. zk.
Egokitua

1.1. ARIKETA-ORRIA –

EGIA ala GEZURRA?

1. Unai txapelketa-bukaeran izan zituen arazo gehien.
2. Edozein has daiteke nabigatzen, Unairen iritziz.
3. Unai prest egongo litzateke berriro munduari bira emateko.
4. Unai inoiz txapelketa uztea ere pentsatu zuen zailtasunen eraginez.
5. Unairen iritziz, txapelketak dibertigarriak dira.
6. Unai urtebete behar izan du bere ametsa betetzeko.
7. Txapelketa bukatu eta beste bat prestatzen dihardu Unai.
8. Itsasoan, bakarrik, aspertzeko denbora sobran egoten da.
9. Unai nabigazioak uzten zion denbora librean, idatzi egiten zuen.
10. Unai Getarian gurasoekin ikasi zuen nabigatzen.
11. Etxera itzultzea gogorra egin zitzaion Unairi.
12. Unai nahiago du taldean nabigatu bakarka baino.

2. IDAZMENA

Egitekoa: INPRIMAKIA BETETZEA

Nola egin:

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Zure medikuarengana joateko hitzordua eskatu duzu eta ostirala arte ezin dizutela eman esan dizute (4 egun itxaron beharko duzu); gainera, ez da bera egongo, ordezeko bat baizik. Aspertzen hasita zaude, askotan gertatu zaizu antzekorik eta. Anbulatoriora joan zara kexa bat bertan jartzera. Azaldu zer gertatzen zaizun eta eskatu medikua aldatzeko.

Oharra: Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako ohiko agurrik ("eskaera onartuko duzulakoan", "besterik gabe", "honenbestez agur"...).



ORRIALDE HONETAN IDATZITAKOA EZ DA ZUZENDUKO

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

1.2. ZUZENKETA-ORRIA — A eredia

Irakurgai: "Unai Basurko, 159 egun itsasoan bakarrik"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

A eredia

1	G	7	G
2	E	8	G
3	E	9	G
4	G	10	E
5	E	11	E
6	G	12	G

1. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA
AZTERKETA IDATZIA

B eredua

1. ABIZENA _____

2. ABIZENA _____

IZENA _____

NORTASUN-AGIRIA _____

KATEGORIA _____

AZTERKETA-TOKIA _____

AZTERKETA-EGUNA _____

ARGIBIDEAK

- Azterketa idatziak bi ariketa ditu: irakurmenekoa eta idazmenekoa. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 20 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren hasieran datozen argibideak.
- Ariketak boligrafoz egin behar dira. Saia zaitetz letra txukuna egiten.
- Zirriborro-orrian idatzitakoa ez da zuzenduko.

1. IRAKURMENA

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Nola egin:

- Behean testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko ariketa bat.
 - Ariketa egiten hasi aurretik, testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - **Ariketa-orrian** datozen esaldiak egia ala gezurra diren markatu behar duzu **erantzun-orrian**.
- Ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dituzu ondo.

UNAI BASURKO, 159 EGUN ITSASOAN BAKARRIK

Gazte honek askoren ametsa bete du munduari bira emanez, bakardadean gainera. Unai ehun eta berrogeita hemeretzi egun egin zituen itsasoan eta, nahiz eta gogorra izan dela aitortu, berriz ere ibilbide bera egingo lukeela adierazi du.

Nondik datorkizu itsasontzietarako zaletasuna?

Nire gurasoekin hasi nintzen nabigatzen umetan, Getarian, itsasontzi txiki batean. Txalupa handitzen joan zen. Gero eta ordu eta egun gehiagotan praktikatzen nuen nabigazioa, eta hortik datorkit zaletasuna.

Itsasontzirik ba al zenuten familian?

Bai, aitak 8 metroko itsasontzia erosi zuen eta aukera genuen guztietan erabiltzen saiatzen ginen: asteburuetan, oporraldi gehienetan... Inbertsio bikaina da, probetxua ateratzen badiozu.

Zer sentitzen da bakarrik nabigatzean?

Taldean nabigatzearekin alderatuta, askoz sentipen handiagoa duzu, bai itsasontziarekin, bai itsasoarekin. Aldi berean, gogorragoa da, lan gehiago eskatzen dizu eta.

Taldean edo bakarka ibili nahiago duzu?

Nik uste dut nabigatzea atsegin dugunok modu guztiak ditugula gustuko. Izan ere, tripulazio on batekin aritzea oso dibertigarria da, baita txapelketetan parte hartzea ere, edo oporretan joatea belaontzi batean. Azken finean, aukera handia eskaintzen duen kirola da.

Baina, hainbeste egunetarako...

Bai, bakarrik hobeto; batez ere, bizikidetzarengatik. Baina, garrantzitsuena gozatzea da beti.

Ehun eta berrogeita hemeretzi egun bakarrik. Zein izan zen memento gogorrena?

Hasiera oso zaila egin zitzaidan. Denbora pila pasatu nuen dena prest edukitzeko. Txapelketa hasi eta berehala arazoak izan nituen eta abiapuntura itzuli behar izan nuen. Psikologikoki memento txarrena izan zen.

Pentsatu al zenuen inoiz txapelketa uztea?

Ez, inoiz ez zitzaidan horrelakorik burutik pasatu ere egin. Zailtasunak zailtasun, beti pentsatzen nuen itsasontziak irauten zuen bitartean nik ere iraungo nuela.

Ehun eta berrogeita hemeretzi egunean bakarrik egonda, entretenimenduren bat izango zenuen, ezta?

Egia esan ez dago denbora askorik entretenimendurako, denbora gehiena lanpetuta egoten baitzara: belei jaramon egiten, janaria prestatzen, apurtutakoak konpontzen, atsedean hartzen... Baina denbora libre pixka bat nuenean, irakurri edo abestiren bat entzuten nuen.

Zertan pentsatzen da horrenbeste denbora bakarrik igarotzean?

Kontu ugari etortzen zaizkizu burura. Meditatzeko aprobeixatu nuen, bizitzan egindakoaz, lagunez, familiaz, txapelketaz...

Eta etxera iristean zer sentitu zenuen?

Gogorra egin zitzaidan. Bi urtetan zehar aktibitate jarraitu bat izan nuen eta amaitzean gogorra egin zitzaidan gelditzea.

Zertan zabilta orain?

Noizean behin nabigatu egiten dut, baina batez ere *Velux* txapelketan bizitakoa kontatzen dihardut.

Hartuko al zenuke berriz ere parte proba horretan?

Bai, zalantzarik gabe.

Bukatzeko, zer esango zenioke bela-munduan hasi nahi duen norbaiti?

Ez pentsatzeko gazte izan behar duenik hasteko. Berdin dio adinak nola sexuak. Eta onena, probatzea dela. Lan asko eskatzen duen kirola izan arren, ematen dituen pozak ere asko dira. Gainera edozein aurrekontutara egokitze moduko txalupa bat dagoela esango nioke; eta itsaso-eskola batera joan eta probatzeko aukera dagoela.

Euskonews Gaztea, 24. zk.
Egokitua

1.1. ARIKETA-ORRIA –

EGIA ala GEZURRA?

1. Unai inoiz txapelketa uztea ere pentsatu zuen zailtasunen eraginez.
2. Unairen iritziz, txapelketak dibertigarriak dira.
3. Unai urtebete behar izan du bere ametsa betetzeko.
4. Itsasoan, bakarrik, aspertzeko denbora sobran egoten da.
5. Unai nabigazioak uzten zion denbora librean, idatzi egiten zuen.
6. Etxera itzultzea gogorra egin zitzaion Unairi
7. Unai nahiago du taldean nabigatu bakarka baino.
8. Unai Getarian gurasoekin ikasi zuen nabigatzen.
9. Edozein has daiteke nabigatzen, Unairen iritziz.
10. Unai txapelketa-bukaeran izan zituen arazo gehien.
11. Txapelketa bukatu eta beste bat prestatzen dihardu Unai.
12. Unai prest egongo litzateke berriro munduari bira emateko.

2. IDAZMENA

Egitekoa: INPRIMAKIA BETETZEA

Nola egin:

- Gutxienez 90 hitz idatzi behar dituzu.
- Saiatu letra garbia eta txukuna egiten. Boligrafoz idatzi behar duzu.

GAIA: Zure medikuarengana joateko hitzordua eskatu duzu eta ostirala arte ezin dizutela eman esan dizute (4 egun itxaron beharko duzu); gainera, ez da bera egongo, ordezeko bat baizik. Aspertzen hasita zaude, askotan gertatu zaizu antzekorik eta. Anbulatoriora joan zara kexa bat bertan jartzera. Azaldu zer gertatzen zaizun eta eskatu medikua aldatzeko.

Oharra: Kontuan izan ez duzula eskutitza idatzi behar; ez idatzi, beraz, gutunetako ohiko agurrik ("eskaera onartuko duzulakoan", "besterik gabe", "honenbestez agur"...).

ORRIALDE HONETAN IDATZITAKOA EZ DA ZUZENDUKO

Z
I
R
R
I
B
O
R
R
O
A

1.2. ZUZENKETA-ORRIA — B eredia

Irakurgaia: "Unai Basurko, 159 egun itsasoan bakarrik"

Ariketa-mota: EGIA ala GEZURRA

Baremoa: ariketa hau gainditzeko, gutxienez 9 egin behar dira ondo.

ERANTZUN ZUZENAK

B eredia

1	G	7	G
2	E	8	E
3	G	9	E
4	G	10	G
5	G	11	G
6	E	12	E